

## M.Uko empresa zientzien fakultateko 50 ikaslek txinera ikasten dute eskola-programaren barnean

2007/08/05

Enpresa Zientzien Fakultateak urteak daramatza eleaniztasunaren alde apustu egiten; horren adierazle da aukera libreko irakasgaien bitartez ikasleei egiten dien hizkuntza-eskaintza.

2006-2007 ikasturterako, ikasleei hizkuntza hauek ikasteko aukera eman zaie: frantsesa, ingelesa, alemana eta, estreinako aldiz, txinera.

Gazte horiek une jakin batean txineraz hitz egiten den inguruneekin harremanetan hasiko direla aurreikusten denez, Fakultateko 50 ikaslek hizkuntza horretan prestatzeko aukera egin dute.

Horretarako, **Jo Ping Lu Tsai** irakaslearen laguntza dugu. Jo Ping Lu Tsai irakaslea ekonomialari tituluduna eta MCCren ohiko kolaboratzailea da; ordezkartza txinatarrekin aritzen da lanean, bai eta langileen eta zuzendarien bisitetan eta trukeetan ere.

